

Jose Mari Uria
Zarautz, Gipuzkoa (1898)

Aurkibidea

Biografia

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-103

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua Uria, Imanol
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Murua Uria, Imanol

Pasarteak

1. Komulgatzeko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-103/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:02:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Komulgatzeko zer egin behar izaten zuten azaltzen du. Komulgatzean, baserrira joan ahal izaten ziren lanera.</p>

Transkripzioa

... Geo komulgatzeko urtiak etorri zian, ta komulgatzea torri giñan, ta nee launak eskolan... bestela... kalia ta hola ibiltzen zianak eta hola zian, ta hayek burla iten zien, zeak... Denboa hartan izaten zan, ba, komulgatzeko dotriña aurretik ensayatu ber izaten zan, ta zea, ta... Hara jun ta batzuk kalabazero ateatzen zian, ta geo, hurrengo urte arte ez zeuken komulgatzeikan. Ta nei launak burla iten zien askotan, “zeak, begi mogikok kalabaza galantak jan ber dizkik datorren urtian”, ta holako kontuak, ta... zea, ta geo, dotriña hasi giñan sakristira zeatzen. Ta don Peliipe dipuntua gizon zazkar zea bat zan, ta hasten da galdezka, ta aurrena galdetu zian nei, ta nik eantzun niyon, ta izuarri eokieran bat izan nun... “Bueno, hi, komulgatuko haiz”, ta “ez daukak kuidauik”. Eta handik aurea goiko bankuan jartzen niñun ni, ta beste batzuk, geyo zekiyenak ustekuak, han galdatzen hasi, ta gaixki atea, suerte txarra eo zeatu ta, nerbioso o, ta hayek aurreko illaan jarri, ta hayei beti lata ta lata, ta gu trankil eoten giñan goyan jarrita, trankil, gu argi batzuk eo asko ikasitako batzuk bagiña bezela. Zea, ta geo komulgatu giñan, ta behin komulgatu ezkeo, lanea basarrin, ez zeon beste zeaikan.

2. Soldadutzan denbora gutxiago pasatzeko

- **Erref:** ZAR-103/007
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzara denbora gutxiago joateko ordaindu egin behar izaten zen. Afrikara joatea tokatu zitzaion, eta denbora gutxiago egoteko zer egin behar izan zuen azaltzen du. Afrikan zer egin zuen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta aipatu dezu soldaduska Afrikan bete zendula; soldaduska hori nola izan zan?
- Soldau, zea, etorri zanen, ba, soldauzka ta geo, zean, pagatu in ber zan, bestela hiru urteako jun ber zan. Soldauzka, milla pezta paauta hamar hillabete pasa, ta holako kondiziyua zeon ordun. Ta gu soldauska kintua

hartu ta zeatu bitarte denboan... Aprika alden ordun'e molestiya batian, gerra zean, ta ez zeola paatzeikan, ta [...]... Geo halako batian, soiñu hoyek atea, ta geo uste nik apropos iten zuela. Geo kaja iriki zala, ta ordun ia jota danak ordun paGatzea amorratzen hara ez juteatikan. Han soldauzka pagatu, ta zeak, gue etxequak, amak eta, geo bi anaik serbituta geneuzkan orduako. Ta bi anaik aurretik serbituta baldin bazaben, erdiya paatu ber zan, eo bestela, denboan erdiya pasa osua pagauta. Ta nik in nuan, ba, milla pezta pagau, ta hamar hillabete pasatzen zan tokiyan milla pezta pagau, ta bost hillabeteekin geatu, bost hillabete pasatzeko. Hala, kinta zeatu zanen, jun giñan Donostira, ta hortikan, gaiñea, aurretikan hiru hillabeten istruziyua ikasten ibili giñan, zea juteako. Orduan lege hori zeon: soldau juteako, aurretik istruziyua ikasi ber. Ta geo, istruziyua ikasten ibili ta geo, han sartu giñan kintan, jun giñan Donostira, ta han pasa giñun hiru hillabete lenbiziko txandan; ta geo, hurrengo urtian, beste bi pasatzekotan etxea torri, ta etxian lanen jardun, ta, han eonda, berriz, hurrenguan, hillan aurrenetik ... kunprittu: hillan aurrenian o erdiyan, o azkenian, eo beak nahi zun zean. Ta gu hillan aurrenian, bai ba, basarrin lanik gutxina ordun izaten da ta... Ordun, in ta geo, udaako laneako libre izateatikan gu, han sartu giñan. Hiru hillabete pasa, ta torri, ta geo, pasa gendun zea, hurrungo zeatzia, ta ordun beste bi hillabete pasa ber. Urtian aurrenian, urtian aurrenian Donostira jun ta beste hiru hillabete pasa, torri, ta itxian jardun nitzan lanian, nee ustez orduntxe, ba, morrontzan soldata irabazi o zeoze iteko ustetan, ta handikan zea... Abuztua baiño leno, berriz, atzea Aprikako mubimentua zala, gerra... ta danak deitu, ta hartu abixua, ta Donostira eaman giñuen; ta Donostiyan "Xixiliako" numero sieteko batailloia zan guria; ta handikan lenbizi batailloi bat eaman zuen, ba kinta, hiru kintatakok eo gazteenetakuak. Ni zarrenetakua nitzan, zea nola [...] gu geatu giñan bertan zeatzen, ta bestiak jun zian batailloia bitatikan osatuta. Ta geo, berriz, beste batailloia juteko zea torri zan, ta ordun, han jun giñan danak hara. Geo han, han ibili giñan, jun, ta mendira zeatu giñun ba lenbizi, nei pasa zitzaidan suertia eo launtza o zerbait izan nun, intendenziko zean sartu nitzan mendira jun biharren, panadeiko launtza, panadeikoei launtzen. Han ogiya karriatu, ta zea, ta aparte iriña eaman, ta ... panadeitzan ez giñan aritu, baiña zeoze, hango lanetan. Han'e pasa giñun bost hillabete eo, ez dakit zenbat pasa giñun han, bost hillabete o geyo. Geo handikan destino danak, zea, jundako batailloia juntatzeko o konpaiña juntatzeko ordena etorri zan, ta hala juntatu giñan berriz danak elkarrena, ta geo handikan danak destakamentuan fortzitu giñan. Gu "Taranez" esaten ziyoen destakamentu txiki baten, zortzi-hamar soldau o ez dakit zer giñan, handik ibiltzen giñan, gaua pasa ta [...] mendira erten deskuidotan, ta han mendiyan guardiyak iten, o zean, moruak etorri ez zitezen eo, ta handikan bueltaka han ibili giñan. Geo handikan hala gabiltzala, aillatu zan ba guk hiru urte kunprittu giñula han, ta lizentziazteko ta hola, torri giñan udaan, abuztuan aurrenen eo.

3. Euskara eta erdara

- **Erref:** ZAR-103/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:11:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Erdaraz gutxi bazekien ere, Afrikan euskaldun ugari zeuden, eta ez zen alferrik galdu. Han ikasi zuen orain dakien erdararik gehiena. Familian euskaraz egiten saiatu izan dira beti.

Transkripzioa

- Han nola konpondu ziñan? Zu beti baserriyan ta kalia beti euskeraz iten, ta hara Afrika jun, ta erderaz nola konpondu...?

- ... Baiña euskal jendia, ordia, geyena gure artian, euskaldun jendia jun giñan Donostitikan, ta han danak beti euskeraz, hara junda euskeraz beti elkarrekin. Tartian, tartian kasteillano batzuk izaten zian, baiña kuadrilla geyena iya mayoriya euskalduna. Ta guk'e euskeraz o erderaz ikasteko probabilidade gutxi.

- Han ikasi al zenuen erderaz dakizuen apurra?

- Ikasi, dakitena han pixkat, han bai geyentsuna; han, ta geo kalea torri ezkeo're pixkat beti. Sayatuko banintz geyo ikasiko nun nik, baiña ez nintzan hortaiño... apiziyoik ez nun izan erderaz ikasteko. Euskerakin nahiko zeatzen nitzan.

- Zure etxian ere euskera nahiko ondo mantendu dezu, ezta? Nahiz eta kalia zure alabak eta askotan erderaz in, hemen beti euskeraz.

- Euskeraz... nik hala eraiten niyen ta. Hemen'e, zeak, umiak erderaz hazi zian gure Juanita ta Maritxu ta hoyek, benga erderaz, ta "ixo!", nik, "euskeraz hemen!", sukaldian, ta hola hartzen nitun, ta... Hayek uain esaten due, eskerrak nei, haatik ikasi zuela hainbeste euskera, bestea gaixki ibiliko ziala. Hola izan zan gure gorabera. Geo hementxe seitu deu, ta estuasuna etorritakon zeoze zeatzeko aiña erdera bakiu zeoze, jana eskatzeko aiña behintzat eta, zeoze zeatzeko aiña, beste korrienteik ez. Baiña, hola, gaiñuntzen gue denboa uaintxe zartu da, ta hola pasa deu guk.

4. Baserritarrak kalean

- **Erref:** ZAR-103/009
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:11:29. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Garaiak aldatu egin dira. Lehen baserritarrak nabarmen geratzen ziren kalean, baina gaur egun ez hainbeste. Lehen lotsatu egiten ziren baserritarrak izateagatik.

Transkripzioa

- Eta uain ikusten dezue gauzak nahiko aldatu dila. Zerk deitzen dizu geyena atentziyua lehen zuek gaztetan nola bizi ziñaten ta orain jendia nola bizi dan? Gauzak asko aldatu dia, ezta?

- Gu bizi giñan denboatikan dana ziharo aldatu... ziharo aldatu're gaiñea. Ordutikan honea difeentziya, a, nundik hasiko naiz... Basarritarrak nabarmen-nabarmen giñan ordun: kalea etortzen giñan [...]. Gaur kaletarra ta basarritarra ez da notatzen, berdintsua dia: kaleko, basarriko mutillak eta neskak honea torri, ta hemengo danan tartian jarri, ta iñork ez zun

ezautuko. Geo, ordun, nahiz jazkera, ta nahiz hitz eiten, ta nahiz zean, nabarmen-nabarmenak giñan. Gu handikan alkarrekin etortzen giñan, hemenguakin ez gendun orduan zeaikan. Batzuk bazian gui kaso iten ziuena, eta [...]; gu hemengo jendiakin lotsatu iten giñan zeatzen, tratatzen eo elkarrekin zeatzen, honea torri arte... honea torri giñanen, geo hementxe hasi giñan danakin berriketan, danakin... hementxe tartian oin, besten tartian.

5. Emaztea ezagutu zuenetik, etxea erosi arte

- **Erref:** ZAR-103/011
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du: ezagun zaharrak ziren, eta nobiotan denbora gutxi eman zuten. Ezkondutakoan non jarri ziren bizitzen azaltzen du. Geroago, etxez aldatu ziren, baina gerra hasi zen orduan. Gerra garaian nola moldatu ziren kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta Benita? Benitakin ezkondu ziñan, ta nola ezautu zendun, ta nola ibili ziñan berekin?

- Benita, bai, Benita hori geure auzokua zan: gu basarri baten ta hoi bestian, ta han ezautu nun nik hori, ta han ibiltzen giñan souan, ta alkarren onduan souak, eta lanian'e hantxe jarduten giñan, hoik'e bai, ta gu're bai, ta beti... Jaitan, berriz, han beste pesta [...] ez zan izaten gue zeaikan, zoeze juntatu alkarrena, ta jokuan in eo zoezer, ta hoyek [...], gu're bai ta, halaxe [...] zan, ta geo alkarrekin, beti ezagun... Ta g eo kalea torri giñanen, hoik han, ta geo hoi're torri da honea serbitzea [...], ta geo alkarrekin hasi hitz eiten, hasi giñan, ta halaxe, alkarrekin, ta... azkenian alkarrekin ezkondu giñan.

- Zenbat denbora eraman zenduen andregai eta senargai bezela?

Andregai... ezaututa urte asko, baiña andregai bezela gutxiyo. Ezaututa bai, launak eta beti, baiña tratamentuan ez giñun urte asko ingo, tratatzen hasi giñala. Gaiñuntzen, holaxe, taillarreko baatza, ta [...] guk'e zoeze ezkondu ta zoeze jarri berko zala martxan, ta ezkondu giñan, ta geo hemen, ta geo ezkonduta berela atzea taillarren gaiñen etxia in berko zala, hemen zeola, ta... Ezkonduta bizitzen Belauntzanen jarri giñan, habitaziyo kaxkar baten, ta han eon giñan urte batzutan, ta geo itxia ein gendun taillarran gaiñian, ez dirua gendulako, baiña baten batek laun inda [...] nola hala arrixkatu giñan, ta hala, behintzat, hemen jarri giñan bizitzen. Ta geo hemen jarri ta berehala gerra altxa zan. Ordun, berriz, ze [...] baatzaik ez zeon, ta gu basarritarrak nola giñan, menditikan eurra ekarri, ta txikitu zerran, ta eurra saldu, ta hola jardun giñan. Ikatzikan ez zan, ta sua ingo bazan eurra ber zan, [...] eta danak eaman zituen zeak, gorriyak, aurea jun zianen. Ta eurra ber zan, ta eurra saldu, ta koopeatibakin tratatuka jardun giñan, ta holaxe berriz muebliakin hasi arte, ta nola hala bizitzeko aiña in gendun, ta holaxe. Ta geo, gerra ondoenen, zeatu zanian berriz muebliak eta [...] eundoko eskia hasi zan muebliakin, ta eozer gauza inda're ona zan ordun, ta orduntxe etxia pagatu gendun, hasi ta behelaxe.

Ta geotzikan hotz handiik ez badeu're, behintzat ordun behela eantzun
giñun, ta uain holaxe bizi gea geotzikan.

Uria, Jose Mari | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com